

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Gasteizko Done Jakue hiribideko 4.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazioaren bidez desjabetzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 6an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Done Jakue hiribideko 4.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari.

2. Gasteizko Done Jakue hiribideko 4.eko jabeen komunitatea aitortzea desjabetze honen onuradun.

3. Delako proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkezterik izan dezan.

4. Halaber, dossierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei balioa zehazteko orrien berri hitzez hitz ematea, banan-banan, alegazioak aurkezterik izan dezaten, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontaktzen hasita —balioa zehazteko orri horietan aplikatu daitezkeen balioeste irizpideak jasotzen dira—, eta orobat jakinaraztea onuraduntzat jotako erakundeari ere.

5. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4.1.c eta 8 artikuluetan oinarrituta, prozeduran interesdun izateari buruzkoak biak, J. F. C-ri (NAN 14464233Q) jakinaraztea, indibidualki, Gasteizko Done Jakue hiribideko 4. zenbakia irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak tasazio bateratuaren bidez desjabetzeko proiektuari hasierako onespena eman zaiola jakin dezan.

6. Jakinaraztea hiru hilabetekoa dela desjabetzeko dosierraren berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, hasteko erabaki hau hartzen den egunetik hasita; dena den, epea etenda egongo da, baldin eta interesdunei akatsak zuzen ditzatela edo beharrezko diren agiriak edo beste judizio-elementu batzuk bidaltzeko eskatu behar bazaie, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo, bete ezean, betetzeko emandako epean.

7. 2021eko uztailaren 7ko ebazpenean obrak hasteko emandako epea etetea, desjabetze-dosierra ebazten den arte. Aipatutako ebazpenaren bidez, Done Jakue kaleko 4.eko jabeen komunitateari obra-lizentzia ematen zaio, kabina duen plataforma bat instalatzeko eta ataria eraberritzeko, higiezina Irisgarritasunari buruzko arau teknikoak onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 dekretura egokitzeko (Eraikuntzen Zerbitzuko 2021/RJERF00019 dosierra).

8. Orobat jakinaraztea probidentzia hau Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Eraikuntzen Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

9. Done Jakue hiribideko 4. zenbakiko jabeen erkidegoari jakinaraztea ezen, indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatuz —2021eko abenduaren 29ko ALHAO, 146. zk.—, desjabetzeko dosierraren hasierako onespenearekin batera, dagozkion tasa —“jabetza nahitaez kentzeko dosierrak

izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada” — eskatuko dela, hau da, 464,45 euro (laurehun eta hirurogeita lau euro eta berrogeita bost zentimo), eta kopuru hori desjabetze-dosierra behin betiko onetsi aurretik ordaindu beharko dela.

10. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko.

Dosierra Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 4. solairua —, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

NAHITAEZ OKUPATU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA						
NAHITAEZKO DESJABETZEAREN INGURUKO LEGEDIAN ETA LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAN EZARRITAKOAREN ILDOTIK EGIN DA ZERRENDA, ZEINAK DONE JAKUE HIRIBIDEKO 4. ZENBAKIA IRISGARRI EGITEKO OKUPATU BEHARREZKOTZAT JOTZEN DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEAK BILTZEN BAITITU, BAI ETA HORIEN TITULARREN IZENAK ERE						
FUNTSA	KATASTROKO ERREF.	ERAGINA		TITULARRAK	ERRENTARIAK	GAINERAKO TITULARRAK
		AZALERA	BOLUMENA			
187/behea, ezkerria	595705210000010007IV (trastelekua atxikita duen merkataritza-lokala)	4,63 m ² .	---	J. F. C. NAN 16288805K	Ez dago jasota	Ez dago jasota